

Gaur-gaurkoz 2025-2026 ikasturterako arreta zuzeneko ordurik ez dutela jaitsiko adierazi digute patronalek



Ez betetzeak han eta hemen ematen ari dira duela 16 hilabete sinatu genuen Greba Bukaerako Akordiotik (GBA).

LABen aldetik, ez betetzeen aurrean, bai bide juridikoa zein ekintza sindikala aktibatuko ditugu.

Atzo, 34. mahai negoziatzailea burutu genuen sindikatuek bultzatuta.

Ikasturtea amaitzen eta birkokapeneko aktak itxi berri edota ixten ari diren honetan, lanpostuen defentsan eta hauek mantentzearen borrokan, GBA-n sinatu zen arreta zuzeneko ordu beteko jeitsierak 25-26 ikasturterako, berebiziko garrantzia zeukan eta dauka.

Ordu jeitsiera aplikatuz gero, lanpostu berriak sortuko liratezke edota eszedente-kaleraketak deuseztu edo gutxituko liratezke.

Marka da gero, 16 hilabete igaro direla eta oraindik GBA ez dela Lan Hitzarmen berrian txertatu.

Mahaian galdera zuzena luzatu genien patronalei

2025-2026 ikasturterako ordu lektibo jeitsiera izango al dugu?

Patronala: Hezkuntza Saitetik finantziatorik jaso ezean, ordu murrizketa ez da emango.

Patronalek, beren burua zuritu nahi horretan, beste mahai negoziatzaileko data bat itxi nahi izan zuten. Gure erantzuna argia izan zen: Lehenengo Lan Hitzarmen berrirako artikuluen proposamen berria bidali (GBAko edukiak txertatuz eta atzerapausoak kenduz) eta gero elkartuko gara.

ADOSTUTAKOA BETE! GU LEHENENGO EGUNETIK BETETZEN ARI GAREN BEZALA!

Hoy por hoy nos han dicho que no bajarán ninguna hora lectiva para el 2025-2026



Ayer celebramos la 34ª mesa negociadora impulsada por los sindicatos.

Ahora que se está acabando el curso y se están cerrando las actas de recolocación, en defensa de los puestos de trabajo y en la lucha por su mantenimiento, el descenso de una hora de atención directa que se firmó en el AFH para el curso 25-26 era y es de vital importancia.

La aplicación de la reducción de una hora lectiva supondría la creación de nuevos puestos de trabajo o la eliminación o reducción de los despidos.

Es asombroso que hayan pasado 16 meses y todavía no se ha incorporado el AFH al nuevo Convenio Colectivo.

Los incumplimientos se están dando aquí y allá desde el Acuerdo de Fin de Huelga [AFH] que firmamos hace 16 meses.

Por parte de LAB, ante los incumplimientos, activaremos tanto la vía jurídica como la acción sindical.

En la mesa planteamos una pregunta directa a las patronales:

¿Tendremos la bajada de la hora lectiva para el curso 2025-2026?

Patronala: Hezkuntza Sailatik finantziatorik jaso ezean, ordu murrizketa ez da emango.

Las patronales, en ese afán de justificarse, quisieron cerrar una fecha para la otra mesa negociadora. Nuestra respuesta fue clara: primero nos enviais una nueva propuesta del articulado para el nuevo Convenio Colectivo (incorporando todos los contenidos del AFH y eliminando los retrocesos que planteaban) y luego nos reuniremos.

ADOSTUTAKOA BETE! GU LEHENENGO EGUNETIK BETETZEN ARI GAREN BEZALA!